



HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA

Espedientea: DNCG_LEY_3193/18_03

Euskadiko mugikortasun jasangarriaren Lege-aurreproiektuaren berri jaso dugu bide telematikotik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan otsailaren 27an Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak Saileko Lege Aholkularitzak bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren 14.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretuak xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezarri zuen: *“euskararen erabileraren normalizazioaren arloan eskumena duenak araua prestatzeko hasierako fasean esku hartu ahal izan dezan”*. Azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak, aurrekoa indargabetuz, bere 4. artikuluan eskaera egiteko epea ezartzen du:

“Proiektua izapidetzen ari den sailak egingo du aholkularitza txostena emateko eskaria, hori taxutzeko espedientea behin behinekoz onartzeko agindua publiko egin ondoren, eta instrukzioa egin duen saileko zerbitzu juridikoak dagokion txosten juridikoa eman ostean”

Izapidetutako dokumentuetan jasotzen denez, aztertzea eskatzen zaigun xedapenaren alde aurreko onarpena otsailaren 5koa da eta, otsailaren 14koa Zerbitzu Juridikoaren txostena. Bete da beraz aipatu Dekretuak xede honekin arautua.

Bestalde, Lege Aurreproiektuaren gaztelaniazko zatia eta alde aurreko onarpena otsailaren 5ean zintzilikatu baziren ere, euskarazko zatia otsailaren 25ean igo da Tramitagunera.

Horrek zalantza sortzen du ea bete edo urratu ote den abenduaren 22ko 8/2003 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 7. artikulua. Artikulu hori jarraiki, aldez aurreko onarpenak legearen testu osoari buruzkoa izan behar du; euskarazko zein gaztelaniazko zatiak barne.

Xedapen hori betearaztera begirakoa da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakia, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituena:

“betiere dagozkion negoziazio, audientzia eta kontsultak egiteko izapideak egin baino lehenago; izapide horiek guztiak ele bitan dagoen testuarekin egin beharko dira. Ondorengo instrukzio faseetan ere, derrigorrezko txostenak eta irizpenak eskatzeko orduan, bi hizkuntza ofizialetan idatzitako testua bidaliko da.”

Ildo beretik, izapidetzearen baitan jasotako txostenek testuaren zati biak hartu beharko dituzte kontuan eta, urratsez urrats, egokitzapenak bietan egin beharko dira. Tramitazioaren baitan egiten diren moldaketak testuaren zati bakarrean burutzea (usadioak ikusita, gaztelaniazkoan oro har) eta amaieran horren itzulpena egitea lege urraketa litzateke; horrelakoetan, prozeduran erabilitako hasierako testuaren erdia alboratuz (euskarazko zatia, adibidez), izapidetzearen ibilbidea jarraitu ez duen testu berri bat onartzen delako.

Halaber, kontuan harturik gaztelaniazko eta euskarazko zatien arteko data tartea, pentsa dezakegu gaztelania izan dela xedapenaren sortze hizkuntza eta euskarazkoa ondoren egindako haren itzulpena; hori horrela izanik, egokia deritzogu gogoraraztea zer dioen Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren otsailaren 27ko 62/2018 Ebazpenaren bitartez argitaratutako Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako erabakiak VI. Plangintzaldirako (2018-2022) Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeke Plan Nagusia onartzen duenak:

*“(…)arazoari aurre egiteko sendabideetariko bat **korredakzioa** da. Ezagun denez, dokumentuak hizkuntza jakin batean idatzi, eta gero itzultzeraz eraman beharrean, teknika horren bidez **dokumentu bera bi hizkuntza ofizialetan idazten da aldi berean**; alegia, testuak, hasiera-hasieratik, bi erredaktore izaten ditu, bakoitza ondoen menderatzen duen hizkuntzan espezializatua, baina elebidunak biak. Idatzi beharreko testuaren edukia eta ezaugarriak zein diren jakin ondoren, bi korredaktoreak ados jartzen dira testuaren helburu, egitura, estilo, hiztegi, testu-aipamen, tonu eta gainerakoetan. Hori eginda, korredaktore bakoitzak bere irakurleen kulturaren ezaugarrietarako moldatzen du testua, eta hizkuntza ofizial biak maila berean jartzea lortzen da horrela. Eusko jaurlaritzak bide hau urratu nahi du arian-arian sail guztietan, eta hori lortze aldera, **IVAPek doako zerbitzu hori eskaintzen du aspalditik.**”*

“(...)hona hemen itzulpenak kudeatzeko irizpide-proposamen batzuk:

- Lanpostuak derrigortasuna izanik, lanpostu horri dagozkion ohiko komunikazioak langileak berak sortu beharko ditu euskaraz, itzultzera bidali gabe. Hori bai, bere sailak laguntza guztia emango dio, lan hori errazteko (zuzenketa programak, batez ere). Nolanahi ere, «egoera bereziak» gertatuko balira (ezohiko dokumentuak, testu konplexuak, presa handikoak...), itzulpenetarako bidea zilegi litzateke.*
- Testu berdina (edo oso-oso antzekoa) ezingo da bi aldiz bidali itzultzera, nahiz eta prozesuan zehar testuak aldaketak izan.*
- Sail bakoitzak neurriak ezarriko ditu, itzultzera bidaltzen diren dokumentuak kontrolatzeko, gure helburu nagusia begi bistatik galdu barik: **itzulpen kopurua murriztea.**”*

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Xedapenaren edukian jasotzen diren planifikazio tresnak egiterakoan kontuan hartu beharko da *Euskadiko Toki Erakundeei buruzko, apirilaren 7ko, 2/2016 Legearen 7.7* artikuluan ezarritakoa; honela dio:

“7.– Udalen egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko da, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten zaizkien neurriak proposatuko dira.”.

Bestalde, txosten honen esparrutik kanpoko gaia izan arren, testuaren idazketan akatsak izan daitezkeen batzuk antzeman ditugu:

- Zioen Azalpenaren amaieran honela dio: *“xedapen gehigarria bat”*
- 4.b) artikuluan honela dio: *“azterketa integral egingo da”*
- 15.2.a) artikulua honela dio:
 - “a) Diseinu erradialeko garraioaren tarifa-zonifikazioaren erregulazioa, lurraldeetako hiru hiriburuak (Bilbo, Donostia eta Gasteiz) batzeko trenbide-sarearen funtsezko egituratze-“*
- 16.1 artikuluan honela dio: *“Garraioko zerbitzu-eskaintzaren programazioa”*
- 18.1 artikuluan honela dio:
 - “Eusko Jaurlaritzak izango du jarraian adierazten diren zerbitzuak ezarri, antolatu, kudeatu eta ikuskatzeko eskumena:*
 - a) Hiriarteko instalazioak*
 - b) 50.000 biztanle edo **gehiagoko** udalerrietako hiri-eremuko instalazioak.”*

Ematen du ez datorrela bat 18.2 artikuluan eta 18.1 artikulua gaztelaniazko testuan ezarritakoarekin

Laguntze aldera ohartarazten dizuegu, zuzendu ahal dezazuen egokia baderitzozue.

Adeitasunez,

Joseba Lozano Santos
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatze zuzendaria